



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

2015EKO ABENDUAREN 23AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2015eko abenduaren 23an, 18:30etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK

BATZARRAREN LEHENDAKARIA: Josu Amilibia Alsua
ABALTZISKETAKO UDALA: Kepa Gorostidi Garmendia
ADUNAKO UDALA: Josu Amilibia Alsua
ALBIZTURKO UDALA: Xabier Maiza
ALTZOKO UDALA: Josu Astrain Azkona
AMEZKETAKO UDALA: Iñaki Amundarain Tolosako
ANDOAINGO UDALA: Ana Carrere
ANOETAKO UDALA: Aratz Luisa Urkola
ASTEASUKO UDALA: Joseba Txapartegi Nieve
BALIARRAINGO UDALA: Martzelino Dorronsoro
BERASTEGIKO UDALA: Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA: Jose Iñigo Aiertza Mujika
GAZTELUKO UDALA: Edurne Garcia Azurmendi
HERNIALDEKO UDALA: Igaro Balda Izagirre
IBARRAKO UDALA: Mikel Agirrezabala
IKAZTEGIETAKO UDALA: Bakarne Otegi Jauregi
IRURAKO UDALA: Jesus Maria Alonso Insausti
LARRAULGO UDALA: Aritz Sarria
ORENDAINGO UDALA: Gorka Egia Arregi
TOLOSAKO UDALA: Patxi amantegi Zubiria
VILLABONAKO UDALA: Ivan Aguirre Saiz
ZIZURKILGO UDALA: Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ALEGIAKO UDALA
ALKIZAKO UDALA
BELAUNTZAKO UDALA
ELDUAINGO UDALA
LEABURUKO UDALA
LIZARTZAKO UDALA
OREXAKO UDALA

GAIZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2015eko uztailaren 23ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri eman: LE20150525.027tik LE20151201.065era**
- 3. 2014 ekitaldiko aurrekontuaren Kontu Orokorraren onespena.**
- 4. 2015-05 zenbakiko Kreditu gehigarrien espedientearen onespena.**
- 5. Hondakinen sorrera gutxitzeko GFAREN diru-laguntzen onespena.**
- 6. Epe motzeko kontratazioa: Etxeko konpostajearen ezarpena eta jarraipena zerbitzua (IV. Fasea).**
- 7. Hiri hondakinen inguruko komunikazio kanpaina: Ecovidrio eta Ecoembes.**

8. 2016 ekitaldirako Idazkaria eta Kontuhartzailearen izendapena.

9. Bestelakoen berri ematea:

- **Arropa bilketa zerbitzuaren esleipena**
- **Eskualdeko hiri hondakinen bilakaera datuak**

10. Galde-erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanuek eman dio fede aktari, Ane Gomez Mankomunitateko Kontuhartzailea den eta Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikarien aurrean.

Lehendakariak Alegia, Alkiza, Lizartza eta Orexako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetakako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALEGIAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ALKIZAKO UDALA: Ordezkaria, Igaro Balda Izagirre.

LIZARTZAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

OREXAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2015eko uztailaren 23ko Batzarraren Akta onestea.

Izenburuan erlazionatutako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri eman: LE20150224.004tik LE20150514.026ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.-

LE20150525.027
LE20150528.028
LE20150609.029
LE20150615.030
LE20150616.031
LE20150616.032
LE20150619.033
LE20150629.034
LE20150630.035
LE20150713.036
LE20150713.037
LE20150713.038
LE20150713.039
LE20150713.040
LE20150713.041
LE20150713.042
LE20150714.043
LE20150714.044
LE20150720.045
LE20150728.046
LE20150821.047

LE20150825.048
LE20150902.049
LE20150902.050
LE20150928.051
LE20150928.052
LE20150930.053
LE20151002.054
LE20151013.055
LE20151015.056
LE20151019.057
LE20151026.058
LE20151029.059
LE20151030.060
LE20151103.060bis
LE20151116.061
LE20151118.062
LE20151126.063
LE20151127.064
LE20151201.065

Jakinaren gainean geratu da Batzarra.

3. 2014 ekitaldiko aurrekontuaren Kontu Orokorraren onespena.

2015eko irailaren 21ean egindako batzorde iraunkorak (Kontuetako batzorde berezi gisa izendatutakoa), 2014 ekitaldiko aurrekontuaren Kontu Orokorrari bere on iritzia eman zion.

Ondoren, 2014 ekitaldiko Kontu Orokorraren espedientearen iragarkia azaldu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 184 zenbakian, 2015eko irailaren 25ean, 15 eguneko epea ezarriz alegazioak aurkezteko. Epea amaitu ondoren ez denez erreklamaziorik jaso, Batzarrari eskatzen zaio bere onespena eman dezan.

Beraz, eskatutako azalpen guztiak eman ondoren, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2014 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea, bertan agertzen diren dokumentu nagusi eta bere osagarrien arabera.

BIGARRENA.- Espedientearen kopia bat Herri-Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, erakunde honi dagokion kanpo fiskalizazioa egin dezan.

4. 2015-05 zenbakiko Kreditu gehigarrien espedientearen onespena.

Kontuhartzaile andreak, Mankomunitate honen 2015 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman du.

Ondorengo proposamena egiten delarik:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 622.01.162.10.2015	Hondakin arriskutsuen etxolak	0,00	72.000,00	72.000,00
1 624.01.162.10 2015	Bilketa kamioiak	0,00	290.400,00	290.400,00
1 625.01.920.00 2015	Bulegorako armairua	0,00	1.000,00	1.000,00
1 626.01.162.10 2015	Inform.prozes. inbert: UHF irakurketa ek.	4.031,72	9.600,00	13.631,72,00
GUZTIRA		4.031,72	373.000,00	377.031,72

Finantzaketa

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2015	Diruzaintzako gerakina	373.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			373.000,00

Kontuhartzailak adierazten du aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Lehendakari jaunak hitza hartzen du adierazteko, Tolosako eta Irurako Udalek aurriztutako zabor bilketaren aldaketa, karga lateraleko kamioarekin burutu beharko delarik, eta Mankomunitateko azpiegitura nahiko justua dela, kamioi berri baten beharra ikusten da, erosi ahal izateko martxan jarri beharko delarik prozedura, horregatik kreditua izateko Kreditu Aldaketa hau proposatzen da.

Teknikariak ondoren aipatzen du kreditu aldaketa honetan proposatzen diren erosketak inbertsioak direnez, kreditu gerakina dagoenez, helburu honetarako erabilteza komenigarria dela.

Hondakin arriskutsuen etxolei buruz, aipatu, Tolosa, Ibarra eta Andoain-eko Udalek badituztela eta asmoa dagoela beste hainbat Udaletan jartzeko (Alegi, Asteasu, Zizurkil eta Anoeta-Irura), honetarako Foru Aldundiari diru-laguntza eskatu zaio eta azken honek onartu du eskatutako diru-laguntza. Landa eremutan, berriz, hondakin arriskutsuen bilketa gaur egun dauden kubeta txikietan egiten jarraituko da.

Mankomunitateko bulegoan armairu baten beharra aurreikusi da, horregatik sartu da Kreditu aldaketa honetan, 2015eko aurrekontuetan ez bai zegoen helburu horretarako krediturik.

Azkenik aipatu, UHF irakurketa ekipoak karga lateraleko kamioarentzat beharrezkoak ikusten direla, gaur egun atzekaldeko karga duten kamioarentzat erabiltzen dira, zerbitzuen jarraipena egiteko oso egokiak direlarik. Horregatik karga lateraleko kamioarentzat ekipo hauek erostea komenigarria egiten da.

Ondoren, Tolosako ordezkariak hitza hartzen du adierazteko, kamioi berria ez dela erosten Tolosako zabor bilketan aldaketak egiteko asmoa duelako baizik eta Mankomunitateak duen azpiegiturarekin ez delako

nahikoa zerbitzu egoki bat prestatzeko, aipatzen du Tolosak izan omen zuela arazo bat eta kamioi hori errosteak Mankomunitateari malgutasun bat emango diola, zerbitzua hobetuz.

Segidan teknikariak argitzen du, Mankomunitateak albo kargako kamioi bat erosi beharrean dagoela gaur egungo zabor bilketa zerbitzuen prestakuntzarako hasierako kontratuko zerbitzuetan baino albo kargako edukiontzi gehiago daudelako, eta gainera aurrikusten baita, Tolosako Udalak zabor bilketa sistema albo kargara aldatu nahi duela eta. Lehendakariak, teknikariak esandakoarekin bat dator eta gainera, Tolosako ordezkariari erantzuten dio Tolosak izan zuen arazoa “errore humano” bat izan zela eta ez azpiegituraren beharrak.

Azkenik, Berastegiko ordezkariak adierazten du, bera Lehendakari ordezkaria izan zenean, Mankomunitateak emandako zerbitzua egokia zela, azken honek zuen azpiegiturarekin nahikoa zelarik.

Beraz, gaia aztertu ondoren bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Mankomunitate honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 622.01.162.10.2015	Hondakin arriskutsuen etxolak	0,00	72.000,00	72.000,00
1 624.01.162.10 2015	Bilketa kamioiak	0,00	290.400,00	290.400,00
1 625.01.920.00 2015	Bulegorako armairua	0,00	1.000,00	1.000,00
1 626.01.162.10 2015	Inform.prozes. inbert: UHF irakurketa ek.	4.031,72	9.600,00	13.631,72,00
GUZTIRA		4.031,72	373.000,00	377.031,72

Finantzaketa

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2015	Diruzaintzako gerakina	373.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			373.000,00

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedienteja jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedienteja behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

HIRUGARRENA: 2015eko azaroaren 3an egindako Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

“KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

“ Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, Mankomunitate honek ez du betetzen 2015rako aurrekontuaren egonkortasun eta gastu araua. Beraz, Mankomunitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2015erako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioak, 2013ko otsailaren 8ko eta 2014ko azaroaren 17ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Dena den, Kreditu Aldaketa espedienteak honako finantziarioa du :

-Diruzaintzako gerakina.....373.000,00

Eta argi eta garbi ikusten da Kreditu gehigarrien espediente honek ez duela Mankomunitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”

5. Hondakinen sorrera gutxitzeko GFaren diru-laguntzen ebazpena

Gemma Eceiza Teknikariak batzarkideei jakitera ematen die Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko sailak, Tolosaldeko Mankomunitateari Hiri hondakinen sorrera gutxitzeko diru-laguntzen babesean hiru proiektu lantzeko diru-laguntzak esleitu dizkiola. Ondorengoak izanik:

-Autokonpostajeraen ezarpena eta jarraipen zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan (IV. Fasea)

-Hondakin arriskutsuen bilketarako etxolak (Alegia, Asteasu, Zizurkil eta Anoeta-Irura)

-Pixoil berrerabilgarrien sustapenerako konpainia.

Proiektu hauen aurrekontuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailak esleitutako diru-laguntzak ondorengoak izan dira:

1)Autokonpostajeraren ezarpena eta jarraipen zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan (IV. Fasea):

Aurrekontua (BEZ barne): 96.763,70€

Foru Aldundiak emandako diru-laguntza: 2015. aurrekontuaren gain: 26.234,67€ eta 2016. aurrekontuaren gain: 33.191,04€

Udalen ekarpenaren bitartez, 38.574,29€ finantziatuko dira.

2)Hondakin arriskutsuen bilketarako etxolak (Alegia, Asteasu, Zizurkil eta Anoeta-Irura):

Aurrekontua: 70.180,00€

Foru Aldundiak emandako diru-laguntza: 2015. aurrekontuaren gain: 24.859,69€ eta 2016. aurrekontuaren gain 13.298,20€

3) Pixoihal berrerabilgarrien sustapenerako kanpaina:

Aurrekontua: 15.154,20€

Foru Aldundiak emandako diru-laguntza: 2015. aurrekontuaren gain: 2.551,49 eta 2.016 aurrekontuaren gain : 3.228,04€

Batzarkideak, guztiaren berri hartzen dutelarik.

6. Epe motzeko kontratazioa: Etxeko konpostajearen ezarpena eta jarraipena zerbitzua (IV. Fasea)

Teknikariak hitza hartzen du batzarkideei azaltzeko Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan etxeko konpostajearen III fasearen segimendu eta ezarpen zerbitzuaren lanak urrian amaitu zirela.

Kontutan izanik, etxeko konpostajearen III fasearen segimendu eta ezarpen sistema amaitu dela eta zerbitzu honekin jarraitzeko asmoa dagoela, etxeko konpostajearen IV. Fasearen segimendu eta ezarpen sistemaren kontratua esleitzeko baldintza administrativo partikularrak prestatu dira. Lizitazioaren prozedura irekia izango da eta zerbitzuak 8 hilabeteko iraupena izango du, zerbitzuaren zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru-laguntzekin finantzatzeko direnez, diru-laguntza hauek zurrizteko epea azaroan amaitzen direlako.

Lizitazioaren prezioa BEZ-a barne 96.691,10 eurotako izango da.

IV. fase honetan, konpostajearen jarraipen bezala errefuxaren karakterizazioa ere egingo da. Tolosa eta Andoingo karakterizazio kopurua handiagoak izango dira. Karakterizazio honekin ikusiko da sistemaren bilakaera zein den.

Aipaturiko fase honetan, familietan jartzen den konpostagailuen ezarketaren eskaera ez da masiboa izango, jadanik ezarketa handiena egingo dagoelako, jartzen diren hoi jarraipena egingo da fase honetan. Aurten gutxi gora behera 800 jarraipen egin dira.

Beraz, bertaratutako guztiak ados daudenez agertutako proposamenarekin, Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- IV. Faseko etxeko konpostajearen segimendu eta ezarpen zerbitzuaren kontratuaren adjudikazio prozedura hastea eta deialdiaren onspena, prozedura irekiaz, eskaintza ekonomiko abantailatsuen, zenbait adjudikazio irizpide.

BIGARRENA.- Kontratua eta adjudikazio prozesua arautu behar dituzten Baldintza Administrazio Partikularren eta Teknikoen Pleguak onartzea.

HIRUGARRENA.- Kontuhartzailegatik kreditu atxikipena egin dadila, kontratua egiteak dakarren gastua finantzatzeko kreditu nahikoa eta egokia dagoela ziurtatzen duena, eta txostena igor dezala gastuaren aurreko ikuskatze edo kritikoren gainean.

LAUGARRENA.- Josu Amilibia Lehendakari jauna ahalmenu, prozedura guztian zehar behar diren izapideak egin eta dokumentuak sinatzeko.

7. Hiri hondakinen inguruko komunikazio kanpaina: Ecovidrio eta Ecoembres.

Teknikariak batzarkideei jakitera ematen die, Ecoembres eta Ecovidrio erakundeak ontzi arinen bilketaren zati bat gordetzen dutela komunikazio kanpainak egiteko, hau dena sinatuta dituzten hitzarmenen babesean.

Bi erakunde hauek gordeta dituzten urteko fondoak akumulatzeko aukera ematen dute, horrela kanpainak sakonagoak egiten dira.

Beraz, Tolosaldeko Mankomunitateak etxean hondakinak gaika bereiztearen beharrari buruz informatzeko eta herritarrek horretaz jabetzeko helburuarekin 2016 urterako sentsibilizazio kanpainaren plangintza aurkezten du. Kanpaina ezberdinen bitartez, bereziki azpimarratu nahi da kalitatezko birziklapena lortzeko herritarrek ohitua hori bere gain hartzeak duen garrantzia. Kanpaina hauek, Ecoembres eta Ecovidrio-k 2014 eta 2015eko komunikazio fondoekin finantzatu dira.

Eskualdea bitan zatitzen da, 1.500 biztanle baino gehiago duten herriak eta 1.500 baina gutxiago dutenak.

Teknikariak azaltzen duenez, 1.500 biztanle baino gehiago duten herrietan, kalean garatuko den kanpaina bat martxan jartzea proposatzen da, herritarrekin zuzeneko harremana ahalbideratuko duten jarduerak eta pertsona-fluxu handiko espazioak proposatzen dira.

Herri hauetan Artelatz Ingurumen Zerbitzuak, S.L., enpresak proposaturiko kanpaina aurkezten da: globoak eta bizikletak.

Programatuko diren bi jarduera ezberdinen izaerarekin lotuta, globoen jarduera pertsona-fluxu handiko guneekin lotuta dagoenez, Tolosan bi saio eta Andoainen bat proposatzen dira, biztanleria baxuagoko herrietan ez bai da egokia ikusten. Bizikletetan oinarritutako jarduerarekin beste 8 herrietara iristea proposatzen da, saio guztietan, 1.000 biztanletik gorako guneetara zuzenduaz.

Jarduera hauek, 2016 urteko martxoan guztiak burutuak izan behar dira, jarraitasun bat izateko. Gainera, herritar kopuru altuenera iristeko aukera izan behar dute, adin desberdinetako herritarrengana iritsiz.

Kanpaina hauek finantzatzeko Ecoembres eta Ecovifrio erakundeen Komunikazio fondoak erabiliko dira, Tolosaldeko Mankomunitateak erabilgarri dituen 2014 eta 2015 urteko fondoak ondorengoak izanik:

	Ecovidrio	Ecoembres	
2014 ekitaldikoak	4.583,55€		8.717,91€
2015 ekitaldikoak	2.791,11€		8.738,45€

Teknikariak azaltzen du, 1.500 biztanle baina gutxiago herrietan, hondakinen komunikazioa kanpaina egin aurretik bilketa sistema bakoitzaren emaitza baloratzea ezin bestekoa dela, batez ere gaikako edukiontzietan egon daitezkeen inpropioen portzentaiak ezagutze aldera. Horretarako, hasiera batean, ontzien edukiontzien karakterizazio azterketak egitea proposatzen da. Azterketa hauek Ecoembres-ek egingo ditu. Ondoren, karakterizazio emaitzak kontutan hartuta herri hauetarako kanpaina zehatzagoak proposatuko dira.

Kasu honetan, 2016 urteko Komunikazio Fondoaren aurreikuspena gutxi gora behera, 11.400,00€ izango dela ikusten da, eta 1.500 biztanle baina gutxiago duten herrietan karakterizazioa egin ondoren proposatuko den kanpainak garatzeko erabiliko da.

Beraz, bertaratutako guztiak ados daudenez agertutako proposamenarekin, Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

BAKARRA: Hiri hondakinen inguruko proposaturiko komunikazio kanpaina onestea.

8. 2016 ekitaldirako Idazkaria eta kontuhartzailearen izendapena.

Ondoren Idazkari jaunak proposatzen du, aipaturiko gaia, batzarraren azken puntua izatea.

Batzarkideak aho batez, onesten dutelarik.

9. Bestelakoen berri ematea

9.1. Arropa bilketa zerbitzuaren esleipena

Teknikariak batzarkideei jakitera ematen die, 2015eko maiatzaren 8an, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan erabilitako arropa eta beste ehunkien gaikako bilketa zerbitzuaren kontratazio

expediente berria hasi zela, prozedura irekiaz, eskaintza ekonomiko bantailatsuena eta zenbait adjudikazio irizpidepean. Aurreko kontratua amaitzeaz zegoelarik.

2015 eko arriaren 14ean Kontratazio Mahaia osatu zen, eta balorazio teknikoaren txostena jaso ondoren, honek, EMAUS GIPUZKOA, S.L.U. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin zuen. Orain arteko esleipenduna OLDBERRI-REZIKLETA, bigarren postuan gelditu zen.

Zerbitzuaren prestakuntza erabiltzen diren edukiontzia esleipendunarenak dira, beraz, orain arte zeuden edukiontzi berdeak, edukiontzi txuriengatik ordezkatu dira. Edukiontzi berriak urtarilean ezarriko direlarik.

Kontratuaren iraupena bi urtetakoa izango da, beste bi urtez luzatu daitekeelarik.

Berastegiko ordezkariak galdetzen du ea enpresa berri honek ze hobekuntza eskeintzen dituen.

Teknikariak dio proposatzen dutena ikastetxeetan kanpainak egitea, eta hori ezinezkoa ikusten dutenez, hobekuntza bezala edukiontzi berri hauek, "Berrerabilpenaren" edukiontzia izango da, eta horrela arropa eta ehunkiez gain egoera onean dauden haibat objektu jaso ahal izango dira, adb. Liburuak, jostailu txikiak eta trenza elektriko txikiak.... Edukiontzien albotan jarrito duelarik bertan zer bota daitekeen.

Azkenik esan, Emaus enpresak proposamen ekonomikoa irabazi zuela, eta aldiz teknikoak Oldberrik. Bainan bi puntuaketen batura Emaus-ek irabazi zuen, horregatik azken enpresa honi aipaturiko kontratua esleitu zaio.

Batzarkideak guztiaren berri jasotzen dute.

9.2.Eskualdeko hiri hondakinen bilakera datuak

Teknikariak batzarkideei azaltzen die, eskualdeko hiri hondakinen bilketa datuak, urtean zehar egin direnak eta bilketa sistemaz banatuak. Ondorengo datuak azpimarra daitezkelarik:

1.-2015 urtean zehar atez-ate sisteman jasotako etxeko hondakinak (RD-2015):

- Alegia: %83
- Ikaztegieta: %82,87
- Anoeta: %70,48
- Irura: %74,44
- Zizurkil: % 62,31
- Villabona: % 77,12
- Ibarra: % 77,19
- Tolosa (Organikoa eta errefusaren edukiontzia irekitze sistema mugatuarekin): %72,44
- Andoain: % 31,78
- Landa eremua (organikoa kontutan izan gabe): %58,77

2.-Ricia jatorriko hondakinen kasua (RD-2015):

- Enpresetan Ricia (atez ateko sistemetan): %59,95
- Garbigunetan Ricia:%49,89

3.- Tolosaldeko Mankomunitatean sortutako hiri hondakinak(RU-2015):

- RD:%60,39
- Ricia enpresa eta garbigunetan: %53,55
- RU gaikako bilketa: % 58,24

Komunikazio kanpaina bitartez, bilketa kalitatea hobetzea lortu nahi da.

Orendaingo ordezkariak ondoren azaltzen du, faltan botatzen duela errefuxa pertsonako zenbat kg. sortzen den.

Teknikariak eta Lehendakariak Orendaingo ordezkariari erantzuten diote esanaz, landa eremuan hondakinen bilketa herri ezberdinen artekoa dela eta egungo sistemarekin ezin dela biztanleko datua atera.

Guztiaren berri bertaratuak jasotzen dute.

10.Galde-erreguak

10.1.Gipuzkoako hondakinen kontsortzioak onesturiko tarifen berri ematea

Tolosaldeko Mankomunitateko lehendakariak hitza hartzen du, batzarkideei jakitera emateko Gipuzkoako hondakinen kontsortzioak onestu dituela 2016 urterako errefuxa eta organikoen tarifa berriak.

Igoera handia datorrela adierazten du Lehendakari jaunak, kalkulu batzuk egin ondoren (batzarkideen artean banatuak izan direnak) errefuxa % 20-a eta organikoa % 68-a igo dela azaltzen du Lehendakariak.

Deskontuak aplikatzerakoan, tramo desberdinak onestu dituzte eta Tolosaldeko Mankomunitatea erdiko tramoan sartuko da, hau da % 30eko deskontua aplikatuko zaiolarik.

Lehendakariak azaltzen du, tarifa hauek, Tolosaldeko eta Urola erdiko Mankomunitateetako ordezkariak izan ezik, gehiengoz onestu zirela.

Beraz, ikusitako igoerak pentsaraztea dakarkio lehendakariari errauskailuaren finantzaketarako erabiliko dela.

19.40. orduetan Berrobiko ordezkaria batzarretik ateratzen da.

Lehendakariak azpimarratzen du, orain dela zortzi urte ere kuotak bikoiztu egin zirela eta orain ere igotzen direla.

Orendaingo ordezkariak bere haserrea adierazten du adieraziz (akta honetan jasota geratu dadin adieraziz), kontutan izanik organiko guztia herrian kudeatzen dutela eta errefuxa lehorra sortarazten dutela, planteatutako igoera jasan izana bihurtzen dela. Beraz, % 20ko igoera errauskailuaren finantzaketarako erabiliko dela pentsatzen du eta LAPURRETA bat dela iruditzen zaio. GHK-ren mafiara bueltatzen garela adieraziz.

Batzarkideen artean eztabaida sakon bat izaten dute, kontutan izanik, GHK-ak aplikatuko dituen tarifa aldaketak, euren herrietan izango dituen eraginaz. Ordezkariak euren kezka adierazten dituztelarik.

20.00 orduetan Hernialdeko ordezkaria batzarretik ateratzen da.

20.05 orduetan Orendaingo ordezkaria batzarretik ateratzen da.

Ibarrako ordezkariak dio Diario Vascon azaltzen omen direla, GHK-k tarifak igotzeko arrazoiak zein diren (artikulua irakurtzen duelarik)...Andoaingo ordezkariak azaltzen du berak ez duela ezertan irakurri behar Diario Vascon azaldutako arrazoiak, hauek, txosten ekonomiko batetan finkatuak egon beharko direla.

Lehendakari jaunak azkenik dio, GHK-ko batzarrera inolako dokumentaziorik gabe joan zirela, aurrekontuak txostenik gabe onartu zirelarik. Gaur iritsi omen zaizkio txostenak eta Gemmari pasatuko dizkiola, beste batzarkide guztiei helarazteko.

Ondoren, Tolosako ordezkariak dio ez duela batzarrontatik atera nahi Tolosa eta Irurako zabor bilketaren sistema aldatzeko hurrengo batzarreko fetxa bat finkatu gabe.

Lehendakariak konpromezua hartzen du, Tolosako Ordazkariari erantzunez, hainbat negoziaketa egin behar dituela, eta hurrengo batzarra urtarilaren erdialdean egingo dela.

8. 2016 ekitaldirako Idazkaria eta kontuhartzailearen izendapena.

Une honetan, arratsaldeko zortziak eta hogeit hamar minututan, Jose Luis Unanue Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkariak batzar honetatik ateratzen da.

Teknikariak batzarkideei jakitera ematen die, Idazkari eta Kontuhartzaileen karguak urtero aldatzen direla.

Teknikariak dio, azken urte hauetan Idazkari lanak Tolosako Udaleko idazkariak egin dituela eta proposatzen du, bera, hau da, Jose Luis Unanue jauna, lan hauek egiten jarraitzea.

Kontuhartzailearen kasuan, aurreko legegaldi bukaeran, Tolosaldeko hainbat udaletxeetako Idazkari-Kontuhartzaileek eginiko eskaera kontutan hartzea erabaki zuela Tolosaldeko Mankomunitateko batzarrak, hau da, era finko batean Kontuhartzaile postua betetzea.

Hau honela izanik, Kontuhartzailearen egoera argitzeko Eusko Jaurlaritzari, bere eskumena delako, txosten eskaera bat egin zitzaion, oraindik erantzuna jaso ez delarik. Egoera honen aurrean, gaur egun kontuhartzaile lanak egiten ari den Ane Gomez, Alkizako Idazkari-Kontuhartzaileak, gaia argitu bitartean, hilabete batzuetan, jarraitzeko asmoa azaldu du.

Beraz, batzarkideei proposatzen zaie, Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkari lanak, Jose Luis Unanue, Tolosako Idazkariak egitea eta Kontuhartzailearen gaia argitu bitartean, Kontuhartzaile lanak, Ane Gomez, Alkizako Idazkari Kontuhartzaileak egitea.

Ondoren, Tolosako ordezkariak bere adostasuna ematen du proposaturiko Idazkari eta Kontuhartzaileen izendapenekin, baina, euren eskatutako zabor bilketa sistema ez bada aurrera ateratzen, euren idazkariaren izendapena berriro aztertu beharko dela azaltzen du.

Gaia aztertu ondoren, batzarkideek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Jose Luis Unanue, Tolosako Udaleko idazkaria, Tolosaldeko Mankomunitateko idazkaria izendatzea 2016 urtean.

BIGARRENA: Ane Gomez, Alkizako Udaleko idazkari-Kontuhartzailea, Tolosaldeko Mankomunitateko kontuhartzailea izendatzea 2016 urtean, Kontuhartzailearen gaia argitu bitartean.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zortziak eta hogeita hamar direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA